

Zapiak

Valladolid. Iraileko arratsalde eguzkitsua. Karima, Arantxa eta beste lagun bat euren seme-alabekin zeuden auzoko igerileku publikoan. Gustura zeuden zelaian, jantzirik, haurrak jolasean begiratzen zituzten bitartean. Bat-batean igerilekuko zaintzailea gerturatu zitzaion: "Hemen ezin duzue jantzita egon. Arropak eransten ez badituzue, igerilekutik alde egin beharko duzue. Bestela, poliziari deituko diot". Zelaian jende gehiago zegoen jantzirik, baina Karimak eta lagunak *hijaba* zera-maten. Arropa hori izan zen zaintzailea gogaitu zuena.

Burua makurtu gabe, poliziari dei ziezaiola erantzun zuten emakumeek. Bi udaltzain hurbildu ziren Karima eta honen lagunarengana eta dokumentazioa eskatu zieten. Arantxari ez zioten ezer eskatu. Karimak haien jarrera hura gertakari sexista eta arrazistatzaletzat jo zituen, udaltzain batek "Españian zaude, neska. Nik esango banizu zer den arrazakeria...", erantzun zion.

Karima eta Arantxa ez ziren isilik gelditu. Komunikatu bat idatzi zuten Facebooken. Hedabideek albistea zabaldu zuten eta kirol zinegotziarekin bildu ziren. Zinegotziak onartu zuen ez dagoela zelaietan kaleko arrokekin jantzita egotea debekatzen duen araudirik. Baina ez zuen polizien eta zaintzailearen kontrako neurririk agindu. Valladolideko koordinakunde feministak ez zuten elkartasunik adierazi, ez haren inguruko sindikatuek, ezta alderdi politikoek ere.

Getxoko "Zurumurrurik ez!" estrategiaren testuinguruan, islamofobia eta generoari buruzko mintegi batean parte hartu dut berriki, Bidaya elkar-teko Hajar Samadirekin batera. Valladolidetik itzuli berria, pasadizo hori kontatu nuen. Hajarrek hamaika istorio zituen kontatzeko. Gogorrena, Marwa El-Sherbiniren kasua, Alemaniako Dres-



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Karima eta Arantxa ez ziren isilik gelditu. Komunikatu bat idatzi zuten Facebooken, hedabideek albistea zabaldu zuten eta kirol zinegotziarekin bildu ziren. Zinegotziak onartu zuen ez dagoela igerilekuko zelaietan kaleko arrokekin jantzita egotea debekatzen duen araudirik. Baina ez zuen polizien eta zaintzailearen kontrako neurririk agindu

den hirian bizi zen egiptiar jatorrizko emakume batena. Gizon txuri baten hitzezko eraso eta jazarpenak salatu zituen. Epaietan bertan gizon horrek

El-Sherbini sastakaiz erail zuen 2009. urtean.

Hajarrek salatu zuen Euskal Herrian ere zapia erabiltzen duten emakumeek enplegua edo etxebizitza bilatzeko orduan, diskriminatuak izaten direla maiz. *Hijaba* emakume musulmanen zapalkuntzaren seinalea dela uste duten pertsona berberak, zapia janzten duten emakume musulmanen funtsezko eskubideen urraketak onartzen dituzte. Gorrotoa sustatzen duten diskurtsoak onartuz indarkeria legitimatzen dute. Genero islamofobia indarkeria xenofobia da (nahiz eta emakumeak bertokoak izan, Islama arrotza bezala ikusten delako), baina baita sexista ere. "Gizarteak emakume musulmanak jaurtitzeko arma gisa erabiltzen ditu Islamaren kontra", azaltzen du Ramia Chaoui youtuberrak burkiniaren debekuei buruzko bideo batean.

Eskuin-muturreko taldeekin lotzen dugu genero islamofobia, baina mugimendu ezkertiarretan ere forma leunagoekin agertzen da. Hajar Samadik gorroto diskurtsoak eta diskriminazio kasuak luze aztertu zituen bere hitzaldian, baina solasaldian hitz egin zuen lehenengo pertsonak, gizon txuri nagusi batek, Muhammad profetaren historia bi minututan kontatu izana aurpegiratu zion: "Ez ditut liburu sakratuak eta santuak gustuko". Ondoren beste gizon txuri batek etorkin eta errefuxiatu ateok ikusgai egiteko beharra aldarrikatu zuen. Hortik aurrera, ez genuen islamofobiaren kontrako estrategien inguruan sakondu; Islama eta Estatu laikoa bateragarriak ote diren eztabaidatu zen, betiere gure ikuspuntu etnozentrkotik abiatuz.

Brigitte Vasalloren hitzak ditut go-goan: "Eraso islamofoboez ari garenean eztabaidetan galtzen bagara, kaltetuen alde egin beharrean, erasoaren parte bihurtzen gara". ■